

ASISTENTZIA MEDIKO-FARMAZEUTIKOKO ASEGURU LIBREKO ENTITATEEN ESTATISTIKA (ALE) 2007. URTEA


2007an, Euskal AEn, %9,4 ugaritu ziren aseguru mediko pribatua zuten pertsonak

Gehien ugaritu direnak banakako edo familia-polizak dituzten aseguratuak izan dira (%10,2)

377.364 pertsonak zuten asistentzia sanitarioko aseguru mediko pribaturen bat kontratatua Euskal AEn ari diren enpresekin 2007an; aurreko urtearen aldean %9,4ko hazkundera da, Eustaten datuen arabera. Hazkunde hau azken urteetako altuena da, 2004an aseguratu-kopuruaren hazkunde aurrerakorren fasea hasi zenetik.

Aseguratu gehienek (%48,3k), **banakako edo familia-poliza** dute kontratatua; ondoren **aseguru kolektiboak** datoz (enpresa batek bere langileentzat zuzenean kontratatutak edo beste kolektibo zehatzen bat, %35,6) eta **mutualitate publikoak** (%16,1).

1. grafikoa: Aseguratu kopurua poliza-motaren arabera (1997-2007)



Iturria: Eustat

Aurreko urtean bezala, aseguratu-kopurua asistentzia sanitarioaren mota guztietan igo da; banakako edo familiarra da gehien (%10,2) hazi dena 2007an 2006aren aldean; ondoren asegurua kolektiboak (%9,4) -azken zortzi urteetan gehien hazitakoak- eta mutualitate publikoak (%7,2).

Aseguratu gehien-gehienek (%97k) asistentzia sanitario orokorra kontratatu du aseguru medikoarekin, zeinak barne baititu lehen artatzea eta ospitalekoa, eta %3k artatze espezifiko (lehen artatzea, espezializatua edo hortzekikoa).

Asistentzia sanitarioaren aseguru-sektorean bildutako primen kopuru osoa 2007an 202,9 milioi euro izan zen, gutxi gorabehera estatukoaren %4 eta Euskal AEko BPGren %0,3. Lehengo urtearen aldean primen kopurua %9,2 hazi zen, Estatuko hazkundearen (%9,9) azpitik.

Aseguratuek 1.285.385 **kontsulta mediko** egin zituzten (2006an baino %2,2 gehiago), medikuko 3,4 bisitaldi. Hona hemen espezialitate jendetsuenak: traumatologia, tokoginekologia, pediatria eta oftalmologia. Aseguratu **ospitalizazioak** 52.205 izan ziren, 3 eguneko batez besteko egonaldiarekin, eta **interbentzio kirurgikoak** 35.219, gehienak kirurgia orokorrean, traumatologian, ginekologian eta oftalmologian.

1. taula: Asistentzia mediko-farmazeutikoko ALEen bilakaera

	EAE			Estatukoa	
	2006	2007	Δ07/06	2007	Δ07/06
KARTERAREN LABURPENA					
Aseguratu kopurua	344.883	377.364	9,4	8.540.276	5,7
Poliza kopurua	178.022	185.951	4,5		
Sari kopurua (mila €-tan)	185.818	202.997	9,2	5.117.741	9,9
MODALITATEAK (aseguratu kopurua)					
Banakoak edo familiakoak	165.594	182.427	10,2		
Kolektiboak	122.701	134.259	9,4		
Mutualitate publikoak	56.588	60.678	7,2		
MEDIKUEN ETA OSPITALEETAKO JARDUERA					
Kontsultak (milakoetan)	1.257	1.285	2,2		
Ospitaleratutako gaixoak	51.117	52.205	2,1		
Ospitaleetan egindako ebakuntza kirurgikoak	34.431	35.219	2,3		

Euskal AEko iturria: Eustat

Estatuko Iturria: ICEA (Investigación cooperativa entre entidades aseguradoras y fondo de pensiones)

Ohar metodologikoa: Estatistika honek Euskal AEn establezimenduren bat duten asistentzia mediko farmazeutikoko aseguru libreko erakundeen informazioa jasotzen du.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte

+Tlf:+34-945-01 75 47 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp